

# Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABAETA

Aretxabaeta • 1996ko urtarilak 25 • 91. zka. •

Haize zakarrak, kalte ugari

Kirola: Xabier Lazpiur

Markole baserriaren historia

III. mailako moduluak

**ALTZARIAK**

- Amuebladora Mondragonosa
- Arenaza altzariak
- Eloy Borjas

**AUTO ZERBITZUAK**

- Ford Mugarri
- Meca
- Oskar Garajea
- Opel Garaje Norte

**BANKETXEA**

- Euskadiko Kutxa

**BITXITEGIAK**

- Martin erloju denda
- Miren-Zuriñe bitxitegia

**DROGERIAK**

- Leintz Rosi
- Maritxu mertzeria
- Lie
- Pagaldai drogeria

**EDERTZE ARETOAK**

- Irudi ileapaindegia
- Gemes edertze aretoa
- Maite ileapaindegia
- Tximak ileapaindegia

**ITURGINTZA...**

- Amaia Berri
- Aretxabaleta iturgintza
- J.J. Iturgintza

**JANARI DENDA**

- Angelines
- Aramaio okindegia
- Arbulo harategia
- Aretxabaleta okindegia
- Bengoa urdaitegia
- Elena autozerbitzua
- Eroski
- Errekabarren fruitategia
- Imanol janari denda
- Iosu harategia
- Jauregi okindegia
- Iozkitegi
- Juantxo urdaitegia
- Leibar arraindegia
- Mireia arraindegia
- Oskar harategia

**JANTZI DENDA**

- Aitziber umeen denda
- Feli jantzidenda
- Iriarte
- Lasagabaster
- Mikelos

**KRISTALDEGIAK**

- Argi-plastic
- Beiralan kristaldegia

**TABERNA ETA JATETXEA**

- Amets taberna
- Arlutz taberna
- Artano taberna
- Azkena taberna
- Basabe jatetxea
- Baster alde jatetxea
- Dorleta taberna
- Express taberna
- Ezkutu taberna
- Haizea kafetegia
- Izotz taberna
- Jose Mari bodegoia
- Kixkor taberna
- Mendiola erretegia
- Mitarte Garai nekazalturismoa
- Taberna-Berri jatetxea
- Txakoli taberna
- Urbaltz taberna
- Valdezate taberna
- Zaraia taberna

**ZERBITZUAK ETA ENPRESAK**

- Aretxabaleta industrialdea
- Doikalse
- Eguzkigraf inprimategia
- Garbitu S. Coop.
- Lasa Aguilera
- Logopedia zentrua
- Mapfre
- Olaben
- Industrialdea Medikuzentroa
- Zenbaki

**BESTELAKO DENDA**

- Don Bideo
- Ibarra estankoa
- Iber
- Jolas leku
- Mari Karmen zapata denda
- Memesa, industri hornikuntzak
- Sagasta
- Txilarra belardenda
- Unzue S.A. pentsuak
- Urkiola argazki denda
- Urkulu S.A




Amaia-Berri, S.L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABAETA




**ARGI-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia  
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

**ERREKABARREN  
MERKATAL ZENTRUA**

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43




# San Blas egunean San Blasera joateko ohiturarik baduzu?

Sabino Bengoa  
(Jubilatua)

Joan izan naiz. Gaztetan ohitura haundia zegoen San Blasera joateko eta denok joaten ginen.

Aurten ez dut uste joango naizenik.



Mari Karmen Atorrasagasti  
(Langilea)

Ni bergararra naiz izatez, orain Aretxabaletan bizi banaiz ere. Bergaran ere badago janariak bedeinkatzeko ohitura hori baina nik ez dut San Blasera joateko ohiturarik.




Osane Ayastuy  
(Langilea)

Bai, badaukat San Blasera joateko ohitura eta hemen egon naizen guztietan joan izan naiz. Fruta, gailetak, erroskilak, e.a. eramán izan ditut bedeinkatzeko.



Mariano Otero  
(Jubilatua)

Bai, aurten ere badaukat joateko asmoa, laster 80 urte egingo ditudan arren. Andreak ematen didana eramaten dut bedeinkatzeko, pik-uak, ura, e.a.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria



## ESKUTITZAK

### ESKERRIKASKO

Atxabaltarroi,

Danok dakigu, eskolan edozein arlo hizkuntzaren bidez -ahoz eta idatziz- ikasten dela. Ikaste prozesu honetan esannahi handia du ikaslearen jarrera positiboak (baikorrak), motibazioa edo gogoia sortzen duelako eta motibazio honek samurtu egiten du hizkuntza ikastea batez ere integratzailea denean.

Jarrera motibatzaile hori eragiten duten faktoreak (arrazoia) asko badira ere, gaur hemen eskertu eta aipatu nahi duguna gizartetik eta bereziki Aretxabaletako erakunde eta herritarrengandik jasotzen dugun erantzun baikorra da.

Ikasleek hainbat proiektu burutzeko behar duten informazioa jasotzeko edo emateko jotzen dute zuengana, era honetan inguruko komunitateko partaide direla sentituz.

Gure eskolako Hezkuntz Proiektuan aurrera eginez, ikasleekin egiten dugunari proiektio soziala (proiektuak eskolakoentzat egiteaz gain kanpokoentzat ere egingo ditugu) ematen jarraituko dugu eta horretarako orain arte bezela zuekin kontaktzen dugu.

Gure eskerrik beroenak Udaleko Batzorde guztioi, kirol elkarteei, kultur elkarteei, hirugarren adineko elkarteei, ikasle eta irakasle ohiei, herriko liburutegiari, euskaltegiari, Aretxagazetari eta hemen aipatu barik geratu arren gurekin kolaboratu duzuen atxabaltar guztioi eta kanpoko lagun, pertsonai ospetsu eta erakundeetako ordezkarioi.


KURTZEBARRI ESKOLA

Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte. Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Josu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M. J. Aretxaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



## 200 hektareatik gora erre zituen Aretxabaleta eta Zubillaga arteko basoetan izandako suteak



Haizeak sua itxungitzeko lanak zaildu zituen

Domeka goizean izugarritzko sutea piztu zen Aretxabaleta eta Zubillaga artean dauden basoetan. Ez dago ziur jakiterik sua nola piztu zen baina badirudi Urkuluko presatik Zubillagara doan Urkulu errekaaren bi aldeetan piztu zela. Hego haize zakarrak suak indar eta abiadura handia hartu zezan lagundu zuen eta Galarria, Kortaburu, Gorordo eta Ursabalgo inguruetan baso sail galantak erre ziren. Beste batzuen artean, Azatzako, Larrinoko, Koruetako eta Arientzako basoak. Kalteak jasandako baso sail hoietan pinua landatuta zegoen gehienetan eta pinu gazteak izan dira sutearen ondorioz kaltetuenak, hauek ez dute saltzeko balio eta.

Oñatiko suhiltzaileak, kamioi zisternak, basozainak eta herriko beste zenbait lagun, basoetako jabeak bereziki, sua itxungitzeko lanetan aritu ziren. Baina haize zakarrak eta sua zegoen lekura heltzeko zailtasunak eragotzi zuten sua berehalakoan itxungitzea.

Ertzainen adierazpenetan, sua arratsaldeko 5ak ingururako kontrolatua zegoen. Hala ta be,

ilunkarararte bertan jarraitu zuten zenbait lagunak, suak han eta hemen arrizku barik baina bizirik jarraitzen zuelako.

### Herrian ere kalte ugari

Herrian ere galera eta kalte ugari eragin zituen domekako hego haize gogorrek.

Bai eraikuntza publikoak eta baita pribatuak ere izan ziren kaltetuak. Publikoen artean, Galartza dorretxearen teilatu zati bat eraman zuen haizeak, Kurtzebarri eskolaren, Zaraia zinemaren, Herriko Plaza 1 eraikuntzako, Kiroletzeko eta Araba Ibilbideko geltokiko kristalak apurtu zituen.

Eraikuntza pribatuek jasandako kalteak ere asko izan dira. Kasu berezietakoa Herriko plaza 5 zenbakiko patioeko estalkia apurtu eta plazaraino bota zuen haizeak.

Kalte hauek ikertzen eta konpontzeko lehentasunak zeintzuk ziren erabakitzen pasatu zuten astelehena, obretako kontzejalak, udaletzeko bi teknikoek eta zerbitzuetako ardurdunak. Galerak 1.700.000 mila pezeta ingurukoak izan dira.

### Azatzako erlojuaren kanpaia ere haize zakarrak apurtu zuen

Hego haize zakar honek urtarrilaren 13 eta 14ko asteburuan eman zuen lehen abisua. Orduan, Azatzako kanpandorreko erlojuaren kanpaiaren hanka apurtu zuen. Horren ondorioz, hanka teilatura jausi zen eta teila batuzk apurtu zituen. Azken hauek bertan aparkatuta zeuden bi kotxeri kalte txiki batzuk eragin zizkieten.


Erlojuaren kanpaia beruntza begira gelditu zen eta suhiltzaileak igo behar izan zuten bertara eta 60 bat kilo pisatzen dituen kanpaia ondo lotuta utzi.

Ez dago beraz, mezetara joateko inungo arriskurik.

Erlojuak orain ez du ordurik jotzen baina lehenbailehen konpontzeko asmoa dago eta datozen bi hilabete barruan konponduta egongo dela uste da.



Plazako 5. zenbakidun etxeko patioaren estalkia itxura horretan gelditu zen plazan



Galartzako dorretxearen zati bat eraman zuen haizeak

# Aurkeztutako 207 lanetatik atzo eman ziren jakitera Loramendi literatur lehiaketako irabazleak

## loramendi euskera elkarte

Urtarrilaren 24an, VII. Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa egin zen.

Aurtengo lehiaketa 207 lan aurkeztu zituzten Aretxabaletako haurrek., hioen artean ipuinak eta poesiak. Hoietatik, 102 lan 3. eta 4. mailakoek; 44, 5. eta 6. mailakoek eta azkenik 61, 7 eta 8. mailakoek. Nagusietan barrez, hau da 15 urtetik gorakoetan ez zen parte-hartzailearik egin.

Sari banaketan, Loramendi Elkarteko burua, Patxi Lazkano; Euskera batzordeburua, Angel Bergaretxe; Kultura batzordeburua, Imanol Aizpurua eta Juan Antonio Rodrigex alkatea egin ziren.

3. eta 4. mailari dagokionez, D ereduan, Garazi Oihangurenek eskuratu zuen lehen saria. 2. Mailalen Marrodan eta Amaia San Vicentek eta 3. Jon Rodrigezek.

Murgiltze ereduan, ipuinetan 1go saria, Lara Bautistarentzat izan zen; 2. Estibaliz Romero eta Ma Carmen Algeberentzat; 3. Vanessa Morales eta Vanessa Gonzalezentzat.

5. eta 6. mailan sariak honela banatuta gelditu ziren: D ereduan eta ipuinetan, 1go saria, Maitane Rubio de Jesusek eskuratu zuen; 2. Aiora Padillak eta 3. Iratxe Arbulok.

B ereduan, 1go saria, Lorena Alvarezek irabazi zuen; 2. Nerea Olivenzak eta 3. Urko Fernandezek.

Azkenik, 7 eta 8. mailan ipuinak eta poesia lanak aurkeztu ziren eta ondorengoak izan ziren sarituak:

D ereduan eta ipuinetan, 1go saria, Maitane Barrenetxearentzat izan zen; 2. Ainara Bilbao eta 3. Izaskun Iglesias.

D ereduan baina poesian: 1go saria, Aritz Garaik eskuratu zuen; 2. Jone Lezetak eta 3. Itziar Pie de Hierrok.

B ereduan barrez, ipuinetan, Leire Blazquez izan zen lehena eta 2. Hector Prieto.

Azkenik, B ereduan baina poesia alorrean, 1go saria, Jesenhia Nuñezentzat izan zen eta 2. Mireia Vallerentzat.

### Lan istripuan arrasatear gaztea hil

Joan den urtarrilaren 12an, Santiago Boisa, 24 urteko arrasatear gaztea hil zen. Istripua arratsaldean gertatu zen Oroko Goikoetxea baserrian, teilatua konpontzen ari zela, teilatutik jauzi zenean. Mutilaren aita, 54 urtetako Ismael Boisa, eta biak ari ziren teilatua konpontzen eta azken hau ere jauzi egin zen. Biak Eskualde Ospitalera eraman zituzten, baina semea hil egin zen. Aitak onera egin du.

### Urkulun lapurretak

Azkenaldian zenbait lapurreta izan dira Urkulun. Lapurretak kotxeetatik egin dira gehienbat, horregatik aurrerantzean bertara joaten zaretenok kontuz ibili.

### Santa Ageda mutilak

Aurtengo Santa Ageda mutilek badaramate denboralditxo bat entsaiatzen. Aurten 77. urtean jaiotakoak dira kinto eta 55 bat inguru dira. Otsailaren 4an Santa Ageda bezperan, base-rriz-baserri kantuan eta eskean ibiliko dira. Otsailaren 5ean Santa Ageda egunez plazan dantzatuko dute arratsaldeko 7retan. Hurrengo, otsailaren 11n dantzatuko dute eta bukatzeko aratuste egunez otsailaren 18an. Santa Ageda mutilek gero eta eskasago dantzan egiten dutela komentatzen da eta aber ba aurtengoek saio txukuna eskaintzen duten plazan.

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA



**MAPFRE**

Aseguroak

Errekararren, 3  
Tfnoa: 77 11 76

Sebastian de la Fuente

**Elena**

**AUTOZERBITZUA**

Murubide z/g ☎ 79 91 76  
ARETXABALETA

**DON**

**Pelikularik  
hoberenak**

Lezama Merkatal zentrua  
ARETXABALETA

**BIDEO**

## Ingurugiro sailak herriko mendi taldeekin lan bateratua egin gura du



Argazkiko zaborra Izurieta eta Untzilako bideen arteko basoetan zegoen

Urtarrilaren 18an, Mikel Otero, ingurugiroko zinegotziak eta Jorge Nuñez udaletxeko aparejadore eta ingurugiroko teknikariak prentsaurrekoa eskaini zuten. Bertan, aurrerantzean dituzten asmoen berri eman zuten.

Ingurugiro saila batzorde independente moduan azaltzen da hurrengo lau urtetarako, garapen ekonomiko, ongizate eta ingurugiro sailaren barruan.

Mikelek eta Jorgek adierazi zuten, udaletxeko beste batzordeak herriko taldeekin lan egin izan dute. Ingurugiroari dagokionez, Murrukixoko M.E. eta Zaraia M. T. dira ingurugiroaz lotura haundiena duten taldeak. Horregatik aurrerantzean lan bateratu bat bideratu gura da herriko bi talde hauekin.

Hurrengo lau urteetan lan egiteko barrez lau bide aipatu zituzten:

- Mankomunitateaz batera eramaten diren lanei jarraipena egin (industri isurketak, zaborraren batzea, e.a.)

- Macro gaiak, laster helduko

direnak, Aitzgorriko parke naturala, Maltzaga-Urbina. Herriari ikutuko dieten gaiak izango dira eta zeresanik emango dutenak.

- 3. arloa konkretuagoa da. Udaletxearekin lotura zuzenagoa duenak eta bertatik bideratu daitekeena. Kontutan izan behar da, ingurugiro saila herritarren zerbitzu bat dela eta herritarren eta udaletxearen zubi gisa jokatzeko duela.

- Azkenengo puntuan, ingurugiro batzordean hurrengo lau urtetarako sortu daitezkeen ekimen barriak egongo lirarteke. Azken hau beti aurrekontuarekin lotuta egongo da.

### Zalaketa

Ingurugiro saila kezkatuta azaldu zen, Untzilarako bidea eta Izurietako bidearen tartean herritarren batek botatako zabor pilarekin, hasi elektra tresneta eta mota guztietako zaborrak ikus zitezkeen bertan.

Horrelako jarrerak ingurugiroari egin diezaioketen kaltea handia da, paisaia estetikoki zatartzeaz gain, ingurua kutsatzen dute. Gainera, zabor apur bat egotea nahikoa da, lagun gehiago zaborrak botatzen hasteko. Gaur egun hainbat zerbitzu daude zabor bilketa aurrera eramateko, hor daude, kontenedoreak, astean hiru bider zabor bilketa, e.a. eta ez dago inguruari horrelako kalterik egin beharrik.

### Leixargarateko aterpea

UDA eta MURRUKIXOKO bazkideren batek mendi aterpe hau erabili gura badu, aldeztu aurretik Murrukixoko lokaletik pasa beharko du asteartetan 7,30etatik 8,30etara.

### San Blas eguna

Otsailaren 3an, zapatua, San Blas eguna ospatuko da. Meza goizeko 11etan izango da Sailuenten eta bertan ohiturari jarraituz janariak bedeinkatuko dira. Esan beharra dago, San Blas eguna gure bailara osoan eta baita Euskal Herri mailan ere arrakasta haundiko eguna dela. Eztarriko mina, "burutik berakoa", eztula eta abarrentzat zaindaria aproposa.

### Keramikako hasierako ikastaroa

kultura sailak antolatuta keramika ikastaroa izango da Aretxabaletan. Oinarritik hasiko da ikastaroa eta Mari Jose Fuensanta Castrok emango du. Ikastaroa hasi aurretik bilera bat egingo da, eta bertan zehaztuko dira ikastaroko orduak eta egunak. Bilera, otsailaren 5ean egingo da Kultur etxean arratsaldeko 6,30etan, eta interesatuta zaudetenok bertara azaldu.

## GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

## Izozkitekari-Gozotegia IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 79 93 58  
ARETXABALETAKO



## BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK  
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETAKO



Urtarrilaren 15ean bota zen Markole

## Markole baserria zegoen lekuan hutsune haundia gelditu da

Urtarrilaren 15ean bota zuten Aretxabaletan hain ezaguna izan den Markole baserria. Aretxabaletan, ormigoi armatuaz eginiko lehen baserrietariko bat da Markole eta horregatik bestelako baserriak baino gehiago kostatu zen botatzen.

Markole baserria zegoen lekuan alde batetik, Ibarra futbol zelaiko aldagela eta graden zati bat joango da eta Ibarako etxebizitzaren

urbanizazioa ere bai.

### Ibarako aldagelak eta gradak

Ibarako etxebizitzetako obrak badoaz poliki-poliki. Futbol zelaiko aldagela eta graden obrek ere hasita egon beharko zuten dagoneko baina Udalak arazo txiki batzuk izan ditu obrak aurrera eraman behar zituen enpresarekin. Hala ta be, obrak laster hasiko direla uste da.

## Andra Mari eliza sitsek erasotua

Andra Mari elizako egurra sitsek erasotua zegoela eta, intsektu hauen aurkako tratamendu lanak aurrera eramaten ari dira azken egunotan. Orain dela 3 bat hilabete konturatu ziren Andra Mari elizako organua sitsak erasotua zegoela. Egurrak jasaten zuen arriskuaz jabeturik gaian adituak ziren pertsonak Andra Mari eliza goitik behera aztertu zuten eta beste leku batzutan ere sitsen aztarnak aurkitu zituzten, koruko lurlean, bertara igotzeko eskilaretan, barandiletan, sakristiako altzarietan, Altareko Jesus eta Ama Birginan, e.a.

Joan den astean, elizako egurra babestu guran sitsen aurkako tratamendua jarri zen martxan eta bi astetan zehar lan desberdinak egin ditu, TECMA gaian aditua den enpresak.

Datorren zapaturako, urtarrilaren 27rako lanak bukatuta egongo dira eta eliza betiko moduan zabalduko da.

Larrinuko elizari ere tratamendu berdina eman diote.



Egurra sitsetatik babestuko da Andra Mari elizan

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK

**RKLI**

Mitarte, 23 • Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33

**IRIARTE**

Umeen  
denda

Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 10 96



**Mitartegarai**  
Jatetxea

- Nekazalturismo etxea
  - Bertako sukaldaritza
- Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51

### LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABAleta

### OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

# SUAREN GAINEAN DANTZAN (II)

**I**ntzineradora edo errauskailuaren inguruan hitzegiten aritu ginen duela hamabost egun, eta gaur ere gai berarekin jarraituko dugu. Aurreko Aretxagazetan azaldu genuen bezala, hau da Instituzioen ustetan zaborra tratatzeko modurik egokiena, bolumena gutxitzen baitu. Baina gizarteko hainbat alderditatik ezadostasuna dagoela ere azaldu genuen.



"AKEI-co Labea", Arrasaten

## Gaurko egoera

Gaur egun Euskal Autonomi Elkartearen intzineradora bakarria daukagu, eta berau gugandik oso gertu, Arrasaten hain zuzen ere. Arrasateko "AKEI-co Labea" deritzon honek, Deba Bailara osoko hondakinak erretzen ditu 1982-ko urriaz geroztik. Hasiera batean esan zenez, bere bizitzak 1996. urterartekoa izan behar omen zuen, ordurako Bizkaia eta Gipuzkoan eraikiko zituzten errauskailu berriek bere erreleboa hartuko baitzuten. Baina oraindik ez dira intzineradora berri hauek eraiki eta beraz Arrasatekoak beste zenbait urtetan aurrera jarraituko du. Bi errauskailu hipotetiko hauen toki finkoa erabakitzeke badago ere, badirudi bata Erandion egitekoa dela (Bizkaia osoko zarama erreko lukeena) eta bestea Tolosan edo Andoainen (honek Gipuzkoa osoko zaborra irentsiko luke).


## Eritzi pertsonala

Instituzioetatik sarritan esan digutenaren arabera, *Hiriko Hondakin solidoen* (HHS-en) erreketak, bilketa selektiboa eta birziklapena ongi egituratu arte zaborraren arazoari irtenbidea emateko era baino ez da. Baina beldur naiz guzti hau produktua saltzeko propaganda besterik ez ote den. Intzi-

neradoraren alde daudenek zaborra eliminatzeaz gain argi indarra sortzen dela diote. Hori egia da, bai. Baina hau gerta dadin, zaramak erreketan bero ugari ematen duten osagai asko izan behar ditu, hala nola, papera, kartoia, jantziak eta materia organikoa, hain zuzen ere biziklagarria dena. Zaborraren osagai hauek errauskailuak eskuratzen baditu, biziklapenari eta bilketa selektiboari atek itxiko dizkio eta ezin izango dugu bide alternatibo hau inola egiteratu.

Intzineradorak oso seguruak direnako irudia ere saldu nahi digute baina experimentalki ikusi denez errauskailuetan eskape toxikoak sarri gertatzen dira. Atmosferara ihes egiten duten sustantzia toxikoen artean, azikdo klorhidikoa (HC1), fluorhidrikoa (HF), eta sufre oxidoa (SO<sub>2</sub>) ditugu, baina hauetaz gain badaude sustantzia kantzergenoak ere, *dioxinak* adibidez. Bestalde intzineradorek ez dute airea bakarrik kutsatzen, zaborra erre ondorengo errauskak ere toxikoak baitira. Hauek zabortegietan gordetzen dira, baina zabortegi hauek zehatz-mehatz kontrolatu ezean oso arrikutsuak izan daitezke, lixibazioz errekak kutsa bait ditzakete.

Guzti honen ondorioz, nik pertsonalki EZETZ esaten diot errauskailuari, oso kutsatzailea izateaz gain zarama alperrik galtzea dela uste baitut. Aurreko alean adierazi bezala, beharrezkoa da lehenik eta behin zabor gutxiago produzitzea, eta ondoren produzitzen dugun horretatik baliogarria zaiguna aprobeztatzea. Orduan, eta bakarrik orduan, sartuko da intzineradora prozesu honetan eta bere funtzioa inolaz ere aprobeztatu ezin daitekeen zaborra eliminatzea izango da soilik.

 **Mikel Arroibe**

BEIRALAN



**KRISTALDEGIA**

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

Aretxabaleta

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea

Tfnoa: 79 01 28

**JOSU**

*HARATEGIA*

**Urdaitegia-Gozotegia**

**Kroasantegia**

**"Janari prestatuak"**

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

ARETXABALETA



**FELIX  
PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33  
Etxekoa: 79 42 56

**ARGAZKI**

*Urkiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA



# • Takolo, Pirritx eta Porrotx •

## Euskal Herriko umeen idoloak

Euskal Herriko umeek ere badituzte euren euskal idoloak, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak esaterako.

Agustin Mujika, Ainhoa Beristain, eta Jose Mari Agirretxe dira, pailazo hioen barruan eskutatzen direnak eta bederatzi urte daramatzate umeak alaitzen. Honez gain taldekide gehiago ere badira, batzuk lasartearrak eta zaldibitarrak beste batzuk.



Umeek oso ondo pasatu zuten Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoekin

**Nola hasi zineten mundu honetan lanean?**

**Porrotx:** Lasarte-Orian Olentzero antolatzen 15 urte daramatzagu. Beti euskararen inguruko ekintzetan sartuta ibili gara eta behin pailazo antzezlan bat egin genuen eta orduan leku desberdinetatik deitzen hasi zitzaizkigun. Hasieran ustekabeen hasi ginen eta gero serioago hartu genuen. Ikuskizuna hobetzen saiatu gara, kantak gertatzen eta orain oso gustora ari gara.

**Azkenaldian han eta hemen gelditu barik zabilzate. Zergatik arrakasta hori?**

**P:** Bai, jendea oso gustora dago, haurrak, gurasoak, andereñoak, e.a. Gure abestiak letra aldetik sinpleak dira, ikasteko errezak eta erritmo polita dute. Honez gain, umeek ondo pasatuko duten sketxak egiten ahalegintzen gara.

**Pailazo bakoitzak zein ezaugarri ditu?**

**P:** Takolo oso pailazo ona da, jatorra eta baita serioa ere. Haur txiki-txikiarentzat andereñoaren papera egiten du. Pirritx eta Porrotxek barrez, bihurrikeriak egiten dituzte eta Takolok jartzen dituen lege hoiek apurtzen saiatzen dira.

**Zertaz da zuek egiten duzuen emanaldia?**

**P:** Emanaldietan haurren partehartzea bultzatzen dugu. Sketx motzak sartzen ditugu, Takolori tranpak egiten dizkiogu. Gero haurrentzat harri-garriak diren fantasiako istorio batzuk ere sartzen ditugu. Azken finean, denetik nahasten dugu.

**Antzezlanak zenbatean behin aldatzen dituzue?**

**P:** Ba... Euskal Herria oso txikia dela kontutan izanik, ikuskizun batekin urtebetean Euskal Herriko

herri asko pasatzen ditugu. Horregatik, urtebete pasatzen denean aldatzea komeni da.

**“Haurtzaroa oso polita da eta umeei ilusioz eta fantasiaz bizitzen utzi behar zaie”**



**Honetara bakarrik dedikatzen zarete?**

**P:** Takolo barnetegi batean irakaslea da. Ni ere irakaslea naiz, baina une honetan lan hau bakarrik egiten dut. Takolo eta biok hezkuntza mundutik etorri gara eta Pirritx barrez, antzerki mundutik etorri da.

**Eta zuen zaletasunak zeintzuk dira?**

**Takolo:** Niri mendia gustatzen zait. Baina orain astebukaerak okupatuta izaten ditudanez ez dut denborarik joateko.  
**P:** Mendira joatea, pasiatzea, e.a. gustatzen zait, Takolori moduan. Gaurregun biok aitak gara eta lanez leporaino gaudenez denbora librean familiaz egoteko erabiltzen dugu.

**Zien adinetako haurrei zuzentzen zarete?**

**T:** Urtebetetik 10 urtera bitartekoei. Guk ikusten dugu, haurtzaroa oso polita dela eta gizarte honetan mozten ari dela. Horregatik, umeei ilusioz eta fantasiaz bizitzen utzi behar zaie haurtzaro hori.

Unibertsitatea eta ikasketak desberdinen artean beste aukera bat eskaintzen dute **3. mailako modulu profesionalak**. Teoria eta praktika tartekatuz lan mundura zabaltzen gaituzten ikasketak dira. Hori dute helburu nagusi; lan mundurako trebatzea. Almen ikastetxean orain dela **5 urte bi modulu jarri zituzten martxan, TASOC eta TAFYD moduluak hain zuzen ere**. Moduluen inguruko xehetasunak jakin guran Jesus Mari Urkizu, Almeneko moduluen arduradunaz berbetan izan gara.



Jesus Mari Urkizu moduluetako arduraduna.



Tafyd-eko ikasleak berotze ariketak egiten.

*Zer dira eta zein helburu dituzte 3. mailako modulu profesionalak?*

Lan munduan hasteko behar den formakuntza eskaintzen duten ikasketak profesionalak dira. Moduluen helburua, lanean hasteko formakuntza ematea da. Eta hori da duten berezitasun nabarmenena, urtean zehar praktikak egiten direna, horrela, lan mundua ezagutzuz eta lanerako gertatuz.

*Edozein zentruk eman ditzake moduluak?*

Ez. Orain artean REM zeukaten zentroetan aurrera eraman dira moduluak. Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu eta zentru bakoitzak modulu desberdinen artean bere zentzurako egokiena dena aukeratzen du. Ondoren proiektu bat aurkezten da Eusko Jaurlaritzara eta proiektuaren araberara dirulaguntza ematen dizute.

*Almeneko kasuan esaterako, zergaitik jarri zenituzten moduluak?*

Guk ikusten genuen, jende guztia ez zioala unibertsitatara eta moduluak beste aukera bat zirela. Horrela, Almenen moduluak jartzea erabaki genuen. Moduluak jarri aurretik ikerketa bat egin zen bailaran, zein behar zeuden ikertzeko. Ikerketa horretan, mundu soziokulturalen

# Lanerako trebatuz

behar batzuk bazeudela ikusi zen. Orduan, Gasteizko XABIDE enpresarekin harremanetan jarri ginen. TAFID moduluari dagokionez Arrasateko ATHLON kirol zerbitzu enpresako profesionalengana jo genuen. Gu ez geunden gertatuta horrelako modulu batzuk emateko eta profesional konkretuak aukeratu genituen.

*Zer dira konkretuki TASOC eta TAFYD moduluak eta zein da eskaintzen duten lan merkatua?*

TASOC-a, ekintza soziokulturaletako teknikaria da, hau da, kultur etxe Diputazio, liburutegi, enpresa pribatuetan, gazte bulego, e.a. lan egiteko. TAFYD-a barrez, ekintza fisiko eta deportiboetako teknikaria,

kirol instalakuntzetan, kanping eta hoteletan, monitore eta animadore moduan, eta heziketa fisikoko maixu laguntzaile lanetan aritzeko aukera eskaintzen du.

*Dagoeneko 5 urte pasatu dira TASOC eta TAFYD moduluak jarri zirenetik. Nola baloratuko zenuke orainarteko esperientzia?*

Gu oso gustora gaude. Akats batzuk ere ikusten ditugu baina uste dut modulu aukeraketa egokia egin dugula eta baita mundu horretan mugitzen diren profesionalak aurkitzen ere.

Moduluetatik pasatu den jendea ere, orokorrean pozik gelditu da. Hoietatik batzuk, lehenengo promo-

ziokoak gehienbat lortu dute lana aurkitzea, beste batzuk ikasten jarraitzen dute.

**Lanerako gertatzea dute helburu moduloek baina jendea lanean hasteko helburuaz etorten da?**

Kasu gehienetan ez da hori betetzen. Moduluetan partehartzen duten asko eta asko beste helburu batzuekin etortzen da. Gehienetan, beste karrera batzuk egiteko, aurretik behar duten nota atera ez dutela eta, moduluen bitartez beste aukera bat izan dezakete unibertsitatean sartzeko. Egia esan, modulua egiten duten askok lortzen dute unibertsitatean sartzea.

**Zein aukera eskaintzen dute unibertsitateek moduluetatik datozenen-dako?**

Modulu bakoitzak, karrera konkretu batzuk egiteko aukera ematen du eta unibertsitate hoietan % 30a FPTik datozenendako gordetzen da. TASOC moduluak esaterako, enpresaritza, heziketa berezia, erizaintza, maisutza, podologia, terapia okupazionala eta gizarte laguntzaile karrerak egiteko aukera eskaintzen du. TAFYD moduluak barrez, fisioterapia, erizaintza, logopedia, maisutza, terapia okupazionala eta gizarte laguntzaile karrera ikasteko.

**Hasiera batean, moduluak denbora laburrerako jartzea zen asmoa, horrela lan merkatua bete ez zedin. Baina aurrerantzean jarraituko dute moduluak?**

Logse batxilergoa zentro guztietara zabaltzea lortzen denean, moduluak desagertu egingo dira eta ziklo formatiboak hasiko dira orduan. Azken hauek, moduluen antzerakoak izango dira, sakonagoak eta aukera gehiago eskainiko dutenak.

Gure kasuan, TAFYD modulu-rako esaterako, eskaera handia dago eta ez dugu kentzerik gura. Ekintza soziokulturaleko moduluarekin barrez, gure zalantzak ditugu. Inguruko merkatua pixkat bete dela ikusten dugu. Hala ta be, datorren urtean baliteke bi moduluarekin jarraitzea baina oraindik ezer garbirik ezin dezakegu esan.



**Dorleta Kortazar**

**Dorleta eskoriatzarra da eta TASOC modulua ikasten diardu Almenen. Heziketa berezia ikasi zuen Irunean eta modulu hau bere ikasketetarako ondo etorriko zitzaiola pentsatu zuen.**

**Gustora zaude moduluarekin?**

Bai. Akats batzuk ikusten dizkiot, baina hezkuntza aldetik ondo dagoela uste dut eta nire ikasketak osatzeko ondo etorriko zait.

**Zer botatzen duzu faltan?**

Aurreko ikasketetan klasean tarte bat izaten genuen gure arazoak konpontzeko eta hori botatzen dut

faltan. Bestetik materia askotan motz geratzen direla uste dut. Nire ustean, arlo batzutan ordu larregi ematen dira eta beste batzutan behar baino gutxiago.

**Zein asignatura gustatzen zaizu gehien?**

Interbentzioa. Asignatura hau da arloarekin zerikusi gehien duena.

**Gogorra da kurtsoa?**

Niretzat bai. Astebukaeran lan egiten dut eta kurtsoa oso intentsiboa dela iruditzen zait. Goiz eta arratsalde klasea izaten dugunean 7 ordu izaten ditugu guztira eta horrez gain gero etxerako lana ere izaten dugu.

**Badakizu non egingo dituzun praktikak?**

Bai, Arrasateko gazte bulegoan egingo ditut. Nik aukeratu nuen lekua eta martxo aldera hasiko naizela uste dut.


**Modulua bukatu ostean, zer egitea gustatuko litzaizuke?**

Lanean hastea gurako nuke. Kultura arloan baino gizarte arazoetan lan egitea gehiago gustatuko litzaidake.



*Teoria eta praktika tartekatzen dituzte moduluak*

**“Lan munduan hasteko behar den formakuntza eskaintzen dute moduluak”**



## Herri mailan buelta polita egin zuten mendi-bizikleta martxan parte hartu zuten lagunek



30 lagun inguruk parte hartu zuten joan den zapatuan Murruxiko M. E.k antolatu zuen herri mailako 1go mendi-bizikleta martxan. Hoiere artean emakume gutxi, bi bakarrik animatu ziren eta.

Goizeko 9retan urten zuten partenoitik eta ondorengo ibilbidea

egin zuten, Azatza, Urkuluko urtegia, Txaeta, Andra-Marizuri, Zubillaga, Torreauzo, San Julian, Gorordo ondotik presaruntz igo, Azatza, Larrino, Oro, eta Murruxikoko iturria.

Murruxikok antolaketa polita erakutsi zuen, Murruxikoko

iturrian, geldialditxo bat egin zuten eta partehartzaile guztiek janari poltsa bana eta kamiseta bana jaso zuten.

Istripu txiki batzuk ere izan ziren bidean, baina ezer larririk ez, guztiek ondo egin zuten etxerako buelta.


### AMETS TABERNA

Iparragirre, 4  
Tfnoa: 79 01 29  
ARETXABAETA

### TXAKOLI

*a*  
*b* - Pintxoak  
*e* - Kazuelak  
*r* - Pulpo espezialitatea  
*n*  
*a*

Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 79 02 25  
ARETXABAETA



### HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57



# ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34



## URBALTZ TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABAETA

### IMANOL JANARI DENDA


Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia  
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA



## EZKUTU TABERNA

Mitarte, 9 • ARETXABAETA • Tfnoa.: 943 - 79 92 01

1991. urtean, 20 urte zituela pasatu zen Xabier Lazpiur txirrindulari afizionatu izatetik profesioaletara. Hasiera baten 3 urte eman zituen Baneston eta gero beste 2 Euskadi txirrindulari taldean. Hala ta be, profesioaletan eman dituen 5 urteetan zortea ez du lagun izan Xabierrek eta lesioek txirrindularitza bertan behera uztera eramán dute.



*“Momentuz  
lana aurkitu dut,  
eta horrek  
aurrera jarrai-  
tzeko ilusioa eta  
motibazioa  
ematen dit”*

• **Noiz hasi zinen lesioekin?**

Banesto taldean nembilen bigarren urtean hasi nintzen arazo batzuk izaten. Bizkar hezurretik sortzen diren arazo batzuk direla eta, hanka baten eragiten zidaten. Egun bateko karrera bat korritzeko ez nuen arazorik baina egunetako karrera luzeak korritzeko bai.

• **Noiz erabaki zenuen txirrindularitza uztea?**

Banesto taldetik irtetzeko nengoela, mentalizatuta nengoen beharbada txirrindularitza utzi egin beharko nuena. Euskadi taldearekin aukera bat sortu zitzaidan eta ingurukoek ere aurrera jarraitzera animatu ninduten eta horrela beste bi urte egin nituen. Baina azkenean txirrindularitza uztea hobeto izango zela pentsatu nuen erdizka ibiltzea baino.

• **Txirrindulari munduan askotan gertatzen da txirrindua utzi behar izatea?**

Profesioaletara pasatzen zarenean, exigentzia ere haundiagoa da eta gorputzak ez badu egoera

horretara erantzuten utzi beharra izaten da. Eta badaude adibideak, Euskadiko taldean esaterako, Xabier Usabiagak bihotzeko arazoak zituela eta utzi beharra izan zuen.

• **Gogorra da txirrindularien bizitza?**

Bai. Profesional mailan kompetitzean, txirrindularitza zure lanbide bihurtzen da eta egiten duzun esfortzuak ekonomikoki konpentsatu behar dizu. Nire kasuan konpentsazio hau ez zen ematen eta uztea hobe zela pentsatu nuen.

• **Zer egin duzu txirrindularitza utzi ondoren?**

Joan den urteko tenporada bukaeran utzi nuen txirrindularitza eta azaroa eta Abendua bitartean formazio ikastaro batzutan aritu naiz. Orain urte barriarekin batera, Arrasateko aseguretze baten hasi naiz lanean agente komertzial moduan.

• **Ezaguna izateak lagundu dizu zeozertarako?**

Orain artean ez baina agian orain lanean hasi naizen lanerako beti balioko du ezaguna izateak.

• **Bizimodua guztiz aldatuko zitzaizun orain, zein da aldaketa nabarbenena?**

Lehen jaiki, entrenatu, etxera etorri bazkaldu eta arratsaldea deskantsatu egiten nuen. Ohera goizago joaten nintzen. Egun guztiak berdina ziren bai asteguna izan edo bai astebukaera izan. Eta etxetik kanpo zeundenean, txirrinduan bakarrik ibiltzen zinen. Orain barrez, egun osoa lanean pasatzen dut baina astebukaerak libre ditut deskantzatzeko eta gura dudana egiteko behintzat.

• **Bizikletan asko ibiltzen zara oraindik ere?**

Beno egia esan orain ez asko. Negua da, hotz egiten du eta gogo haundirik ez da egoten bizikletan ibiltzeko. Baina udaberri partera hasiko naiz ostera ere.

• **Aurrera begira zein asmo dituzu orduan?**

Momentuz lana aurkitu dut eta lan horrek aurrera jarraitzeko ilusioa eta motibazioa ematen dit. Orain ikusi egin beharko lana ondo joaten zaidan ala ez.



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta

EGUZKIGRAF  
inprimategia

Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792944

ARETXABAETA



Urtarrilaren 19an tanbor-hotsez bete ziren herriko kaleak. Pausoka haurtzaindegiko umeak goizean goizetik egin zuten tanborrada. Batzuk despistatu samar ibili ziren tanborra jotzerako orduan baina ondo pasatu zutela ezin ukatu.


# “Tanborrero dale fuego...”



Gero Kurtzebarri eskolako neska-mutikoez hartu zuten txanda eta herriko plazan ikuskizun dotorea eskaini ere bai.



Arratsaldean Sata Rita ikastetxeko haurrak izan ziren, Raimundo Sarriegiren konpasak dotore-dotore jarraitu zituztenak.



## IBARRA

### ESTANKOIA

Tabakoa eta ikasmateriala  
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

## MEMESA S.L.

### Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

## BITXITEGIA

### MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 77 13 57

## ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABALETA

## SAGASTA

### ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra-instalaketak  
Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

## BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79



## AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 Tfnoa: 79 74 57



Juan Arregui, Markole baserrian jaio eta bizi izan zen 28 urterarte. Berak kontatu digu Markole baserriaren historia



**M**arkole baserria ezaguna eta oso nonbratua izan da Aretxabaletako herritarren artean. Futbol zelai ondoan zegoen baserri haundi eta ederra zen.

Baina nondik dator Markole baserriaren izena? Zeintzuk bizi ziren bertan? Galdera hauen erantzuna Gasteizen bizi den Juan Arregui atxabaltarrak eman digu. Markole baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 28 urterarte. Orain 88 urte baditu ere, atzo gertatu izan balira moduan kontatzen ditu Juanek, Markole baserriaren nondik norakoak. Eta zelako istorioak gainera, gustora eta luze entzuten egoteko modukoak. Hala ere, tarte honetan laburpen txiki-txiki bat egin beharrean izan gara.

Juanek kontatutakoaren arabera, Markole izen frantsesa ei da eta **"Itsaso barea"** esan gura du. Baserriak izen frantsesa izateak badu bere esplikazioa. Izan ere, baserria garai batean ansaldotarrarena zen. Ansaldotarrak San Enriqueko bizkondeak ziren eta harreman haundia zuten aristokraziarekin; orduan ohitura zen moduan Biarritzen elkartzen ziren eta horra hor Markole izen frantsesa izatearen arrazoia.

Markole baserrian sartu zen lehen Arreguitarra, Juanen birraitona izan zen, Gregorio Arregui. Arantzazukoa zen eta Markolera ezkondu zen, Maiztegitarren alaba batekin.

Juanen aitona, hau ere Gregorio Arregui Maiztegi, baserriko maiorazkoa zen eta bera gelditu zen baserrian. Aurrean esan moduan, baserria Ansaldotarrarena zen eta urteko errenta bi kapoi eta gari anegek in ordaitzen zuten.

Baina 1918. urtean, ordurako Juan ere jaiota zegoen, Ansaldotarrak saltzen jarri zituzten 7 baserriak. Baserri bakoitza, 7.000 mila durotan. Arreguitarrek 1.000 duro merkeago erostea lortu zuten Markole, Ansaldotarrekin tratu bat egin ostean.

Garai haietan, umeak ugari ekartzen ziren eta Juanen aita-amek, Lorentxo Arregui eta Maria Garaik 13 seme-alaba izan zituzten. Juan hirugarrena zen eta guztira 18 lagun bizi ziren baserrian; 13 anai-arreba, aita-amak, aiton-amonak eta lehengusu bat.

Baserria txiki gelditu zen guztientzat eta Gerra Zibila bukatu ostean, 1940. urte inguruan, baserria berriztu egin zuten eta baita haunditu ere.

1956. urtean Arregui-Idigoras familiak bigarren berrikuntza bat egin zuen baserrian, Markole baserria bota dutenerarte iraun duena.

# Hor konpon



M.J. Aretxaga

Aste bukaera nahastua izan dugu, zoro haize zakarra, su beldurgarria, teilatuak hegaz... Eguraldiak guztiok gogor astintzen gaitu noizean behin. Agian hori gertatu zen zapatu goizean udaletxeko inguru hartan. Niri behintzat gorputza arraro samar jarri zitzaidan, Loiolako Herri Irratiko saioa entzuterakoan. Nik ez dut esaten Aretxagazetak lan izugarri egiten duenik Aretxabaletan euskeraren munduan baina aipamenik txikiena ere ez egitea gehiegi iruditu zitzaidan. Sarri despistatzen dira gure politikoak, dana dala, hor konpon, nik nirearekin jarraituko dut.

Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri behar izaten zaio eta nik umorea ez dut horregatik

galduko, gainera herrian dauden txistelari eta barreragileak asko direla jakin izan dut.

Alde batetik, herriko talde baten faltan bi fan ziren ETBko Txiskola programara, hoiere artean, **Oier Sarasua**, **Iker Iglesias** eta **Xabier Idigoras** zeuden talde batean eta bestean **Iosu Otxoa**, **Iñaki Elorza** eta **Errarte** mondrauetarrak osatu zuten. (Azken hauek entzun dudanez mondrauetar moduan hartu zuten parte).

Bestetik, Zeraia Zinemaren inaugurazio egunean egin zen atzeratuen aldeko jaialdian kriston txiste txapelketa izan zen. Irabazleak honako hauek izan ziren, 1. **Martin Antxia**, 2. **Gorka Uriarte**, 3. **Ibon Elordui-Zapatarietxe**, 4. **Nerea Lete**, 5. **Irati Agirre**, 6. **Alex Azkargorta**, 7. **Joseba Arkauz**. Irabazle guztientzat egon zen saririk. (Txikito de la Calzada ez zen faltan bota).

Hasiera batean Ane Igartiburu eta Patxi Alonso atzeratuen aldeko jaialdia aurkeztekoak baziren ere, azkenean **Jon Antxia** eta **Eider Otxoa** izan ziren aurkezle lanak egin zituztenak eta egia esan edarto egin zuten. Laster tele 5rako ere gertu izango ditugu.

## A R E T X A Z O K A

- Norbaitek Aretxagazeta aldizkariaren 4., 5., 6. eta 13. zenbakidun aleak etxean eduki eta ez baditu behar, Aretxagazetako bulegora ekartzea eskertuko genioke. (Kultur etxean).

- Urtarrilaren 4an ekus egindako larruzko poltsa bat desagertu zen. Aurkitu ezkerro deitu 79 05 26 telefonora. Eskerrik asko.

### LANA

- Heziketa Berezia (Educación Especial) ikasi duen ikasleak lana egingo luke atzeratu edo heziketa arazoak dituzten haurrei laguntzen. Deitu, (943) 79 52 97 telefonora.

- Lurra lixatu, barnizatu, (barniz ekologikoarekin) eta parketa, tarima jartzen ditut. Eskatu aurrekontua konpromezu gabe. Telefonoa: 71 50 72.

- 1.go mailatik 2. REMerarte arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 77 14 31. Deitu arratsalde 8,30etatik 9,30etara.

### ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gauzez deitu ondorengo telefonora 71 40 47.

- Pisu bat salgai dago Aretxabaletan, Solohaundi 25 kalean. Hornitua dago. Harremanetarako telefonoa: 79 46 25

- Logela bat salgai dago. Erosi berria da. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espidoludun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremanetarako telefonoa: 79 57 07 da eta Pauligatik galdetu.

- 82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Hiru horma kalerutza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Lora-mendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Eskoriatzan jantzitako etxea alokatzen da. Telefonoa: 79 87 26.





### Luis Mari, Eneko eta Jontxu

## “Famosoak ez baina popularrak bihurtu gara”



ETBko Txiskola lehiaketa irabazi ostean, famosoak ez baina popularrak bihurtu dira Luis Mari, Eneko eta Jontxu abadiñar gazte hauek. Famosoak ez, diote, Popularrak!!! “Famosoek dirua izaten dute eta gu pobreak gara”. Holaxe erantzun digute. Aretxabaletako atzeratuen aldeko jaialdian egin zen txiste lehiaketan epaile lanetan ibili ziren eta baita txiste kontari ere.

**• Befdandik izan duzue txisteak kontatzeko zaletasuna?**

Eneko: Nik bai, aita beti izan da txistoso samarra.

Luis Mari: Gutxi

Jontxu: Nik inoiz ere ez.

**• Zelan animatu zineten Txiskola lehiaketan partehartzen?**

“Enboskada” bat izan zen. Lehiaketan bizkaitar gutxi zeudela eta gu “engantxatu” gintuzten.

**• Txisteak horren samur okurritzen zaizkizue?**

Ez, preparatu egiten genituen. Hemen inguruko txiste kontalari batzuei galdetu genien txiste batzuk kontatzeko. Hasierako programan inprobisatu egin genuen, baina gero aurrera pasatu ginela ikustean eta saria jokuan zegoela ikustean, gehiago gertatzen ekin ginen. Hala ta be, guretzako hobe da txisteak astebate lehenago gertatzen hastea baino aurreko egunean pentsatzea.

**• Gastatu dituzue lehiaketan irabazitako bi milioiak?**

Haziendak milioi erdi kentz digu! %25a.

Jontxu: Zorretan dena gastatu dut.

**• Txiste kontalari ona izateko ze behar da?**

Ba... naturala izatea, soltura izatea eta hori bai txiste aurpegia izatea. Txistea oso ona izan ez arren, norberak grazia eman diezaioke.

**• Telebistatik gain, txiste emanaldirik egin duzue?**

Bai, Elorrixotik deitu ziguten. Abadiñon ere bertso afari bat egin behar da laster eta gu ere joan behar dugu txiste batzuk kontatzera.

**• Txiste bat kontatuko diguzue ezta?**

Bi gizon basamortutik zioazten eta bati sugedorri batek hainke egiten dio hanka artean.

- Hil behar naz! Hil behar naz!...

- Trankilo gizona, mediku bat topetan juango nok.

Herrira joan da eta han mediku bategatik galdetu du, baina medikue barik, Kuranderue dagoela esan diote.

- Beno ba, zu, emaidazu erreimeixo bat nere lagunarentzat.

- Hori oso erreza da. Hainke egin dion lekuan ebaki bat egin eta gero txupatu.

Lagunarengana arinetan juen da eta...

- Hil egin behar naz. Zer esan dizu medikuak?

- Zuriek ez daukala erremedixorik.



### Beheko laukian, Aretxabaletan azpian dauden berbak zelan esaten diren aurkitu beharko duzu:

- 1.- GABE - B...
- 2.- KORRIKA - T...
- 3.- HITZEGIN - B...
- 4.- APAIZ - A...
- 5.- NAHI - G...
- 6.- ITZALI - I...
- 7.- INOIZ - S...
- 8.- GAIZKI - T...

T	Z	A	T	E	K	L	U	D	L	A	G
T	U	E	S	I	G	N	U	X	T	I	K
I	X	A	C	B	E	R	B	A	I	B	T
B	Z	A	R	O	R	N	K	S	L	A	R
A	T	O	R	I	O	A	T	R	A	Z	O
R	A	Z	E	T	R	R	E	L	M	T	A
I	Z	T	O	R	O	R	M	O	K	E	S
K	A	A	A	T	R	A	L	A	G	D	R
A	R	R	E	O	S	E	K	U	L	A	O
N	A	B	Z	I	E	S	O	N	Z	B	K
N	A	R	O	Z	A	R	A	K	R	A	R
U	S	I	T	E	G	A	R	U	G	R	A

## GURUTZEGRAMA

Gordilekua Liburuen biltegia	Gutun lekua Biztanle multzoa	Erakunde onpile Rutenioa	Musika nota Atzikkia	Jostunen tresna Nahi
Likitsa Ez gaur, ez bihar		gai haluzinagarri Arrenkura		Ogi, hitz elkar Oheko laun
Morala Euskara titulua			Leku horretan Krypton	
	Erronkako ibaita Bitarte			Bokala Adi ezan!
Oinazaren idazpena Nolako...				Akuri
			Toka, du Deialdia	
Atzo gaucan	Modua Zango itala		Gip. Duza Narda	
		Neona Ebaki		Atx! Bizk. Enara
Halei, zezan Jantagailua				Mahai joko
		Oskol Bizk. Naiz		Hamar Bizk. Gebiegi
Lehen bokala Aldatzera eragin	Eki. Nauk Dauka		Edo Azkena birritan	
Arzoz			Otarre	

**BERGARA**



**Urtarrilak 26**

**KONTZERTUA**

Mikel Herzog-en kontzertua. Frontoian izango da gaueko 10,30etan.

**ARRASATE**



**Urtarrilak 26-29**

**SAN BALEIXO MEATZERREKAKO JAIAK**

Urtarrilaren 26tik 29 bitartean **San Baleixo** Meatzerrekako jaiak ospatuko dira.

**OÑATI**



**Urtarrilak 27**

**ANTZERKIA**

**KATALINA DE ERAUSO** antzerki taldeak "**Cuanto suman 6 mujeres y una bruja**" antzezlan eskainiko dute gaueko 10,30etan Santa Ana aretoan.

**Otsailak 10 zapatua**

**ANTZERKIA**

**BEDEREN BAT** antzerki taldeak, "**Zu (t) gabe**" antzezlan eskainiko du, Santa Ana Antzokian gaueko 10,30etan.

**IRRATI IKASTAROA**

Arrasate irratian, 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta. Bi aukera daude: irratsaioak egiten edo kontrol teknikoa nola eraman ikastea. Otsailaren 28tik maiatzaren 22ra bitartean, guztira 24 ordu. Eguaztenetan arratsaldeko 7retatik 9etara. Matrikula 3.000 pta; gazte eta langabetuentzat 1.500 pta. Izenematea gazte bulegoan.



**GARAGE NORTE S.L.**

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86


ARETXABALETA

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

**MANTEKA ANIAK**

*Okindegia - Goxotegia  
Panaderia - Pasteleria*



*Aretxabaleta*

*Mbitarte, 1 - Tfno. 77 00 81*

*Aretxabaleta*

*Obrador Propio*

**MENDIOLA  
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

**Astelehenetan itxita**

**Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA**



Murrukixok antolatuta

❖ **MENDI IHARDUNALDIK 96** ❖  
(Urtarrila eta otsaila)

**Otsailak 3 zapatua**

SAN BLAS EGUNA

11etan meza egongo da Sailuenteen.

**Otsailak 4 domeka**

BABAJANA LEIXARGARATEN

Urteera partenoitik goizeko 9retan.

**77. URTEKO KINTOAK BASERRIZ-BASERRI KANTUAN**

Santa Ageda mutilak baserriz-baserri kantuan eta eskean urtengo dira.



**Otsailak 5 astelehena**

KERAMIKAKO HASIERAKO IKASTAROA

Keramikako hasierako ikastaroa hasi behar dela eta bilera bat egingo da egun honetan kultur etxean arratsaldeko 5,30etan.

SANTA AGEDA EGUNA

Arratsaldeko 7retan Santa Ageda mutilak banakoa eta desafioa dantza egingo dute., fandango, arin-arin eta kalejira batez bukatzeko.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailera 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Pausoka 77 03 77
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzailak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdia (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

**Urtarrilak 26 eguakotxa**

DIPOSITIBA PROIEKZIOA

Murrukixo M. Eak antolatuta Madre de Dios (Amazonas) bideo proiektzioa, Gema M. Arrugaetaren eskutik. Gaueko 10etan Zarai zineman.

**Urtarrilak 27 zapatua**

GAZTE URTEERA. DISFRUTING

Murrukixo M. Eak antolatuta GAZTE URTEERA egingo da. Urteera ordua goizeko 9retan partenoitik.

**Urtarrilak 28 domeka**

MENDI URTEERA

Murrukixo M. Eak antolatuta AITZGORRI-ALOÑA tontorrik tontor urteera. Urteera ordua 8retan partenoitik.

LEHENENGO ERREGIONALA-BERAUN

Ibarra futbol zelaian arratsaldeko 4,30etan.

**Otsailak 2 eguakotxa**

MURRUKIXOKO BATZAR OROKORRA

Arratsaldeko 7retan Murrukixoko lokalean.

DIPOSITIBA PROIEKZIOA

Murrukixo M.T. antolatuta, Batiz Goikoetxearen eskutik AITZGORRI-NEGUAN. Zاراia zineman izango da gaueko 10etan.

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# *Fiesta* BERRIA



Goxo hau  
probatzeagatik hotel  
batetan hiru gau  
pasatzeko aukera  
izango duzu zure  
lagunarekin.

Zatoz Fiesta berria  
probatzera.



# MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • Tfnoa: 79 07 44 / 54 • Faxe: 79 62 54 ARRASATE